



Gaur goizean espainiar poliziak SATeko kidea den Nestor Salvador atxilotu du Madrileko autobus geltokian. Nestor Portugalera joaten zen jardunaldi batzuetan parte hartzera eta Madrilerara heldu denean espainiar poliziak abordatu du, SATek azaldu duenez Granadatik omen zeuden bere atzetik. Atxiloketa hau 2013.urteko ekimen batekin lotuta dago. 2013ko abuztuan SATek haurrentzako eskola materiala desjabetu zuen Sevillako Carrefour batetik. Ekimen honen bitartez, Andaluziako haur askok eskolarako materiala erosteko dituzten salatzea izan zen. Honen harira Nestor inputatu zuten baina Nestorrek justiziarik intsumisioa egitea erabaki zuenez, SATeko kideek bezala, ez zen aurkeztu epaitegian eta SATen ustean horregatik atxilotu dute. Eguerdian Madrilgo epaitegitik pasa ondoren, aske geratu da.